

## Informazio orria

# LEGE ETA LAN AHOLKULARITZA

### 1. Zer da Lege eta Lan Aholkularitza zerbitzua?

Lege eta Lan Aholkularitza zerbitzuaren asmoa da lan arloko hainbat gairi buruzko informazioa eta aholkua ematea.

Lan harremanetan aditu diren pertsonak (lan-arloko abokatuak) osatutako lan-taldea izango da gai hauei erantzuna emateko arduraduna.

### 2. Zein baldintza bete behar dira zerbitzu hau erabili ahal izateko?

Zerbitzua erabili nahi duen orok honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Basauri edo Etxebarri udalerrietan erroldatuta egon.
- Lanean edo langabezian egon.

### 3. Laneko zein gairi buruz eman ahal didate informazioa eta aholkua?

- Laneko eskubide eta betebeharrak: lege arloa.
- Kontratuak.
- Nominak.
- Lan baldintzak.
- Lan-utzialdiak eta baimenak.
- Kontziliazioa.
- Laneko arriskuen eta istripuen prebentzioa.
- Laneko jazarpena edo mobbinga.
- Hitzarmenak.
- Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa (SEPE).
- Zigorrak.
- Kaleratzeak.
- Enpleguko Erregulazio Espedienteak.
- Lan baldintzen aldaketa unilateralak.

**Informazio eta aholkularitza zerbitzutik kanpo** geratuko dira:

- Edonolako erreklamazioa edo eskaera prestatu edo aurkeztea.
- Eskari eta prestazioak prestatu, aurkeztu edo tramitatzea.
- Azterlan edo kontu-ikuskaritzak egitea.
- Bitartekaritza edo adiskidetzetan esku-hartzea.
- Atzerritarren Legearekin lotutako gaiei buruzko informazio edo aholkularitza.
- Taldekako informazioa eta aholkularitza.
- Autonomo, enpresa, erakunde, organizazio, elkarte edo entitateei arreta ematea.

### 4. Nola eskatu Lege eta Aholkularitza Zerbitzua?

Eskaria bete, hemen:

- **BASAURI:** Behargintza Basauri Etxebarri. Baskonia Kalea, 1. Tlfno.: 94 426 29 99.
- **ETXEBARRI:** CIME, Egetiaga Uribarri kalea, 1.
- N.A.N. - A.I.Z. presentatu behar da.